

Leitzarango Bisitarien Etxeak apirilaren 1ean irekiko ditu ateak aisialdi jasangarriko eskaintza berrituarekin

- Otieta eta Olazarrera doan GI3091 errepidea itxi egingo da asteburu eta jaiegunetan turismo jasangarria sustatzeko helburuarekin eta HIRIBUSaren nahiz bizikletaren erabilera eta oinezko paseoak bultzatuko dira.
- Aste Santuan (apirilaren 1etik 5era) HIRIBUSak 3 joan-etorri egingo ditu goizez (10:00 / 11:00 / 12:00) eta beste 3 arratsaldez (17:00 / 18:00 / 19:00).

Leitzarango Bisitarien Etxeak 2021eko jarduerari turismo jasangarri eskaintza berri eta erakargarriarekin helduko dio. Datorren ostegunetik, apirilaren 1etik, aurrera, **zentroak zerbitzu pertsonalizatuak eskainiko** dizkie Leitzarango bailarara hurbiltzen diren pertsonei; eta bailarari, Leitzarango-Plazaola Bide Berdeari eta Andoaini buruzko informazio turistikoa ere eskainiko du zentroak.

Hilario Dorronsoro eta Manu Segovia Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Saileko teknikariek, Ainhoa Zuazu zentroko arduradun eta BiziBiziki enpresa kudeatzaileko kideak eta Txitxu Ruiz kultura zinegotziak eman dituzte gaur eskaintza berriaren xehetasunak.

Zentroak goizeko 10:30etatik arratsaldeko 18:30etara bitarteko ordutegia izango du. Zuazuk aurkezpenean adierazi duenez, "ilusio handiz, gure ingurunea ezagutzeko eta inguruko naturaz gozatzeko interesa duten bisitariari eta andoaindarrei harrera egiteko eta arreta emateko gogoz" daude zentroan, "balio natural handiko ingurune batean aisialdiko jarduerak jasangarriak eskaintzeko prest".

Bisitak eskainiko dira Leitzarango ibaiaren Biotopo Babestua eta hura hartzen duen harana ikuspegi hidraulikotik erakusten duen Uraren Interpretazio Zentroan. Halaber, tour gidatuak diseinatu dira Leitzarango ingurune naturalean eta inguruetan flora, fauna eta mitologia ezagutzeko eta bizikletaz edo bizikleta elektriko bidez berdetik hainbat tour egiteko aukera eskainiko da, ibilgailuok alokatzeko aukerarekin.

2021eko denboraldiaren atarian, bilera parte-hartzaile bat egin da bailarako bizilagunekin, besteak beste, iaz ezarritako 2 neurri nagusien jarraipenaren berri emateko: errepidea ixtea eta hondakinen kudeaketa jasangarria indartzea.

Otieta eta Olazarrera doan GI3091 errepidea asteburu eta jaiegunetan itxi egingo da. Izan ere, turismo jasangarria sustatu nahi da HIRIBUSaren, bizikletaren erabilera eta oinezko ibilaldien bidez. Bailarako bizilagunek, desgaitasuna duten erabiltzaileek eta baimendutako langileek soilik izango dute autoz igarotzeko baimena. Ekimenaren helburua andoaindarren mugikortasun-aukerak handitzea da, naturaguneetara iristeko alternatiba erakargarriak eskainiz inguru horretan masifikazioak saihesteko. Errepidearen itxierak Gipuzkoako Foru Aldundiaren oniritzia du, eta urrirarte iraungo du.

HIRIBUS zerbitzua funtsezkoa izango da ingurunean mugikortasuna sustatzeko. Aste Santu honetarako, apirilaren 1, 2, 3, 4 eta 5ean, HIRIBUSaren zerbitzu indartua eskainiko da,

egunean 6 itzulirekin, ordu hauetan: 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan, 17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan. Leitzaranera zuzentzen den ibilbidea Garayar-eko autobus geltokitik hasten da (San Martin elizaren atzean), Kale Nagusia (Bastero), Kaleberria (Nafarroa zubia), Zumea Plaza, Aiztondo, Olazar eta Otieta eremuetan geldialdiak egingo dituelarik. Andoaingera itzultzeko ibilbideak alderantziz egingo ditu geldialdiok.

Era berean, erabiltzaileek sortutako **hondakinen kudeaketa jasangarria** sustatuko da. Iaz Otieta eta Olazar parkeetan zaborra behar bezala kudeatzeko seinale berriak jarri ziren. 2021ean ere ez da banakako zaborrontzirik egongo, eta hondakinak edukiontzi bidez biltzeko eta sailkatzeko guneak ezarriko dira.

Zentroaren eskaintza eta agenda hainbat jarduerarekin osatuko dira, hala nola: GPSa erabiltzeko ikastaroa, sendabelarrei eta ukenduei buruzko tailerra edo hegaztientzako habiak sortzeko tailerrak. Denboraldi berri honetarako, Leitzaran Bisitarien Etxeak **lankidetzakordioak** bultzatuko ditu Andoaingo Udaleko Kultura eta Gazteria sailekin.

Kulturatik, Txitxu Ruiz zinegotziak aurreratu duenez, "Leitzaran bailara uztailean musika eta kultura ekitaldi oso berezi baterako eszenatoki gisa erabiliko da". Horrela, *UDAGIROAN*-en programazioko hitzorduetako bat, oraindik diseinatzen ari direna, Leitzaranen egingo da, eta "erronka bat izango da, logistikaren ikuspegitik, baita COVID-19aren aurkako segurtasun-neurri eta -protokoloen kudeaketaren ikuspegitik ere". Azkenik, Mari Jose Izagirre zinegotziak aurreratu duenez, gazteria saila "lanean ari da udan *Leitzaran Abentura* udalekuak bailaran bultzatzeko, bertan kirola, natura eta abentura ardatz hartuta".

Slow adventure balio natural handiko ingurune batean

Mari Jose Izagirrek gogorarazi duenez, 2016an Leitzarango Bisitarien Etxea ireki zenean, "natura turismoaren aldeko apustua egin zen, *slow adventure* edo abentura lasaiean oinarritutako eskaintza batekin, jasangarritasuna, irisgarritasuna, kultura eta tokiko ondarea kontuan hartuta".

Aurrekari horiekin, Izagirrek azpimarratu du "logikoa" dela pentsatzea "ingurumenaren iraunkortasuna funtsezko premisa izan dela eta izaten jarraitzen duela Leitzaran inguruko edozein proiektu abian jartzeko", eta adibide gisa jarri ditu bide berdea hobetzeko lanak, Leitzarango kudeaketa jasangarria sustatzeko mahaia, ibilbideen seinalizazioa eta bidezidorren sarea hobetzea, hondakinen sentsibilizazio-kanpaina, ikastetxeekin mugikortasun jasangarrirako espazio bat lantzeko kanpaina edota aurki martxan egongo den *Via Ferrata* proiektua.

Azken proiektu horri dagokionez, zinegotziak "5 urte luzez egindako administrazio-ibilbide luzea" nabarmendu du, mota guztietako bermeak eta ingurunearekiko errespetua izatea bermatzen baitute: inpaktua neurtzeko ikerketekin, gaian adituak diren biologoen edo geologoen ikerketa-lanekin eta hainbat administrazio ikuskatutako parte-hartzearekin. Izagirrek aurreratu duenez, maiatzean "alturako ibilbide interpretatu berria aurkezteko moduan egongo gara, modu jasangarrian, edukiera arautuarekin eta aurretiko hitzorduarekin aurrera emango dena".

Andoaingo, 2021eko martxoak 26